

SAHARARI buruzko adierazpen instituzionala

Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975ean, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zuen 'Madrilgo Akordioa'. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorriz, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen “Lurralde ez Autonomia” dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharako da oraindik etenda dagoen estatu post-kolonial bakarra.

Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –'de iure' ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz gerotik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez. Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko.

Horiek horrela:

1. Debako Udalak erabat arbuatzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera erroitik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.
2. Debako Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatuz amaitu beharko litzatekeena.
3. Debako Udalak eskatzen dio Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBeko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkiolako eta, haren baimenik gabe, ezin dituelako inork erabili.
4. Debako Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen diete uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin

jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.

5. Debako Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Debako erakunde zein herritarrei dei egiten diegu jarrai dezatela Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen.

6. Debako Udalak berresten du Fronte Polisarioa dela Saharako herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra, NBEak eta nazioarteko komunitateak hala onartuta.

Deban, 2022ko maiatzaren 4an.